ZARAUZKO UDALA
BERDINTASUN DEPARTAMENTUA

XVIII. KARTEL LEHIAKETAREN OINARRIAK
Martxoaren 8a - EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA – 2026. urtea

Lehena.- Parte-hartzaileak

Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du, banaka edo taldean, epaimahaikoek eta Zarauzko Udaleko langileek izan ezik. Egile bakoitzak gehienez lan bat aurkeztu ahal izango du, eta originala eta argitaragabea izango da.

Bigarrena.- Gaia eta ezaugarri teknikoak

Kartelen gaiak zerikusia izango du martxoaren 8arekin, hau da, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin, eta honako testu hau bakarrik jarriko da ondo ikusteko moduan:

2026ko martxoaren 8a – Emakumeen Nazioarteko Eguna

Lanak inprimaketa profesionalarekin bateragarria den formatu batean aurkeztu beharko dira. Horretarako, diseinuak CMYK kolore moduan prestatuta egon beharko du, erreprodukzioak zailtasunik izan ez dezan. Ez da onartuko sistema horretakoa ez den kolore berezirik, adibidez, tonu metalikoak (urrea edo zilarra), tinta fluoreszenteak edo CMYK bidez sortu ezin diren beste efektu batzuk.

Kartela egiteko Adimen Artifizialeko (AA) sistemak erabiltzen badira, irudiaren egileak jakinarazi egin beharko du Adimen Artifizialean oinarritutako sorkuntza-tresnak erabili dituela. Kartela formalizatzean zenbateko esku-hartzea izan duen zehaztuko du, eta jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzen dituela bermatu. Balorazioari dagokionez, giza esku-hartzea adimen artifizialaren (AA) erabileraren gainetik egongo da.

Lanak nahitaez ordenagailuz egingo dira, eta e-mailez bidaliko dira helbide honetara: berdintasuna@zarautz.eus

Bidalitako artxiboek ezaugarri hauek izango dituzte:

* Formatua: JPG
* Bereizmena: 300 ppp
* Neurriak: zabalera: 40 cm - altuera: 50 cm

Bidalitako artxiboek NAHITAEZ baldintza hauek beteko dituzte:

- Artxiboari fikziozko izen bat jarri behar zaio kartela identifikatzeko, baina kartelaren egilea nor den ez identifikatzeko moduan.

- Artxibo horrekin batera, egilearen datuak bidaliko dira karpeta batean. Kartelaren artxiboan jarri den fikziozko izen bera jarriko zaio karpetari. Karpetan datu hauek sartuko dira **nahitaez:**

    - Izena eta bi abizenak
    - Jaioteguna
    - Helbidea
    - Telefonoa
    - Posta elektronikoa
    - NANa (edo atzerritarren kasuan, nortasun agiri ofiziala), bi aldeak eskaneatuta.

Edozein datu edo karnetaren kopia falta bada, kartela lehiaketatik kanpo geratuko da.

Egilearen ardura izango da lehiaketara aurkezten dituen artxibo informatikoak behar bezala eginda egotea.

Lanak originalak izango dira, hots, egileak berak sortutakoak eta argitaragabeak.

Martxoaren 8a sustatzeko eta hainbat euskarriren bidez zabaltzeko erabiliko dira saritutako kartelak (kartelak, foiletoak, elastikoak, imanak, web-orria, pankartak…).

Zarauzko Udalak ahalmena izango du karteletan Zarauzko armarria eta egoki iruditzen zaion beste edozein informazio txertatzeko.

Kartel irabazlearen egileak kartelean txertatu beharko du Zarauzko Udaleko Berdintasun Departamentuak martxoaren 8rako antolatutako ekitaldien egitaraua. Gainera, egitarauaren foiletoa ere diseinatu beharko du kartel irabazlearen diseinu berarekin.

Hirugarrena.- Aurkezpena

Lanak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 22ko 12:00etan bukatuko da.

Aurkeztutako lanean pertsona baten irudia agertzen bada lehen planoan edo ondo ezagutzeko moduan, pertsona horrek sinatutako baimena ere erantsiko da, irudi hori kartelean eta ondorengo edizioan sartzeko.

Laugarrena.- Saria

Bi sari egongo dira:

- Epaimahaiak emandako saria: 600 euro
- Kartel bozkatuenaren saria: 200 euro

Sari horiek indarrean dagoen legerian ezarritako atxikipena izango dute.

Aurkeztutako lanak oso kalitate txikikoak badira, lehiaketako saria eman gabe uztea erabaki dezake epaimahaiak.

Saria ordaindutakoan, Zarauzko Udala izango da obren jabe legitimoa, bai eta ustiapen-eskubideena ere; era berean, saritutako obrak oraingo eta etorkizuneko euskarri eta plataforma guztietan erreproduzitzeko, egokitzeko, banatzeko, komunikatzeko eta jendaurrean zabaltzeko eskubideen jabe ere izango da.

Bosgarrena.- Balorazio-irizpideak

Kartelen balorazio eta aukeraketa prozesuan, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Kalitatea eta originaltasuna
- Proposatutako gaiarekiko egokitzapena
- Sormena

Seigarrena.- Epaimahaia

Epaimahaia honela osatuko da:

Epaimahaiburua:
- Gloria Vazquez Herranz: Zarauzko Udaleko Berdintasun zinegotzia, edo berak izendatutako pertsona.

Epaimahaikideak:
- Diseinuan eta komunikazioan aditua den pertsona bat
- Myriam Gonzalez Txabarri Azpeitia, Zarauzko Udaleko erakusketen arduraduna edo berak izendatutako pertsona
- Emakumeen* Mahaiko ordezkari bat

Idazkaria:
- Irati Baroja Agirregabiria, Zarauzko Udaleko Berdintasun Departamentuko arduraduna, edo berak izendatutako pertsona.

Zazpigarrena.- Lanen hautaketa eta bozketa

Epaimahaiak oinarri hauetan jasotako baldintza guztiak betetzen dituzten kartelen artetik aukeratuko du irabazlea.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta Berdintasun Departamentuaren blogean eta sare sozialean argitaratuko da, aurkeztutako lan guztiekin batera.

Bozketa: jendeak Facebooken bozkatu ahal izango du "*me gusta*" atalean klik eginez. Boto gehien lortzen duen kartelak herritarren saria lortuko du.

Otsailaren 2an jarriko dira kartelak Facebooken, eta ordutik otsailaren 6ko 10:00ak arte bozkatu ahalko da.

Berdintasun Departamentuak erakusketa bat egingo du Emakumeen* Etxean, aurkeztutako lan guztiekin.

Zortzigarrena.- Sarituak edo hautatuak izan ez diren lanak

Erakusketa bukatzen denean, Udalak suntsitu egingo ditu jasotako artxiboak eta erakusketan erabilitako kopiak.

Bederatzigarrena.- Azken arauak

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri horiek guztiak onartzea.

Informazio gehiago:

Zarauzko Udala – Berdintasun Departamentua
Nafarroa kalea 3C - 20800 ZARAUTZ
Telefonoa: 943-005117
Posta elektronikoa: berdintasuna@zarautz.eus
Web: https://www.emakumeenetxea.zarautz.eus/eu/
Facebook: Zarauzko Emakumeen Etxea